



ITURENGO UDALA

(Nafarroa)
31745

Jose Maria Alzuri Vertiz
Maria Larretxea Echeverria
Pedro Francisco Mindeguia Elizalde
Miren Ilarregui Belarra
Naiara Arretxea Gorosterrazu
(Kontuhartzailea)

2025eko otsailaren 13an, 16:00ak direnean, ohiko osoko bilkuran elkartzen dira Iturengo Herriko Etxean ondoan aipatzen diren zinegotziak, legeak eskatzen duen bezala deitu eta gero. Francisco Javier Bereau Miquelarena —Alkatea— da bilkurako burua eta idazkaria, Izaskun Mielgo Rey. Gai Zerrendako gai hauek aztertu dira:

1. AURREKO BILKURETAKO AKTAK ONETSI.

Udalburuak akta aurkeztu ondoren, bozkatzera deitu du, eta Udalbatzak hurrengo erabaki du:

Alde 6
Abstentzio 1

1.- 2024ko azaroaren 25, abenduaren 20 eta 2025eko urtarrilaren 17ko aktak onartzea.

***** AINHOA BEREAU ALTXU zinegotzia sartzen da*****

2. 2025EKO AURREKONTUA ETA PLANTILLA ORGANIKOA

Kontuhartzaileak aurrekontua aurkeztu du eta ondoren bozkatzera deitu du. Udalbatzak aho batez **hurrengo erabaki du:**

1.- 2025eko aurrekontua hasierako onespina ematea.

2.-2025eko aurrekontua erakustaldi publikoan jartzea hamabost laneguneko epean.

3.- Erakustaldi publikoa Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Hau da aurrekontuaren laburpena:



ITURENGO UDALA

(Nafarroa)
31745

DIRUSARRERAK:

EUROAK

1. Kapituluak.	Zuzeneko zergak:	121.322,11
2. Kapituluak.	Zeharkako zergak:	8.000,00
3. Kapituluak.	Tasak eta bestelako dirusarrerak:	40.450,00
4. Kapituluak.	Transferentzia arruntak:	323.390,00
5. Kapituluak.	Ondareko dirusarrerak:	29.610,84
7. Kapituluak.	Kapital transferentziak:	373.816,84

DIRUSARRERAK GUZTIRA: 896.589,79

GASTUAK:

EUROAK

1. Kapituluak.	Langileen lansariak:	53.450,00
2. Kapituluak.	Ondasun eta zerbitzuen gastuak:	206.814,81
3. Kapituluak.	Finantza-gastuak:	1.200,00
4. Kapituluak.	Transferentzia arruntak:	199.254,54
6. Kapituluak.	Inbertsio errealak:	431.170,44
9. Kapituluak.	Kapital transferentziak:	4.700,00

GASTUAK GUZTIRA: 896.589,79

Kontuhartzaileak, 2/1995 Foru Legea, martxoaren 10ekoa, Nafarroako toki ogasunei buruzko 248 artikulua azaltzen du eta Udalbatzak aho batez **hurrengo erabaki du:**

1.- Iturengo udalak fiskalizazio sinplifikatua onartzen du.



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

2025EKO PLANTILLA ORGANIKOA

Udalburuak 2025eko plantilla organikoa aurkeztu du eta ondoren bozkatzera deitu du. Udalbatzak aho batez **hurrengoa erabaki du**:

- 1.- 2025eko Plantilla organikoari hasierako onespina ematea.**
- 2.- 2025eko Plantilla organikoa erakustaldi publikoan jartzea hamabost laneguneko epean.**
- 3.- Erakustaldi publikoa Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.**

3. 2025EKO LAN EGUTEGIA ETA EGUN BALIOGABEEN DEKLARAZIOA

Alkate udalburuak 2025eko lan-egutegia aurkeztu du, onets dadin. Bertan jasotzen da, orobat, Nafarroako Foru Komunitatearen esparruan, ordaindu bai baina errekuferatu behar ez diren laneko jaiegunen egutegi ofiziala, honako arau hau oinarri hartuta: ekainaren 5ko 493/2024 Ebazpena, Enpresa Politikaren, Nazioarteko Proiektzioaren eta Lanaren zuzendari nagusiak emana, Nafarroako Foru Komunitatearen esparruan, ordaindu bai baina errekuferatu behar ez diren 2025eko asteguneko jaien egutegi ofiziala ezartzen duena (2024ko 145. Nafarroako Aldizkari Ofiziala, uztailaren 16koa). Hona hemen:

Nafarroako Gobernuak ofizialki izendatutako jaiegunak, baita Iturengo gainerako jaiegunak ere:

- Urtarrilaren 1a: Urteberri eguna.
- Urtarrilaren 6a: Errege eguna.
- Urtarrilaren 27a: Inauteak
- Apirilaren 17a: Ostegun Santua.
- Apirilaren 18a: Ostiral Santua.
- Apirilaren 21a: Pazko bigarrena.
- Maiatzaren 1a: Langileen eguna.
- Uztailaren 17 eta 18: Herriko festak.
- Uztailaren 25a: Done Jakue eguna.
- Abuztuaren 15a: Ama Birjinaren Jasokundea.



ITURENGO UDALA

(Nafarroa)
31745

–Azaroaren 1a: Santu Guztien Eguna.

–Azaroaren 11: San Martin (patronala).

–Abenduaren 3a: San Frantzisko Xabierkoa.

–Abenduaren 6a: Konstituzioaren eguna.

–Abenduaren 8a: Sortzez Garbiaren eguna.

–Abenduaren 25a: Eguberri eguna

Urteko lanegunak 246 dira eta horiei kendu behar zaizkie 27 opor egun eta norberaren aferetarako 3 egun; beraz, azkenik, 216 lanegun dira, eta egiazko lanorduak 1.592.

Lanaldia, oro har, astelehenetik ostiralera bitartekoa izanen da, eta 7:30etatik 15:00ak arte lan egin beharko da; gainerako denbora egiteko, langileek aukeratzen ahalko dute malgutasunez.

Aipatu lanaldiaren banaketa ez zaie aplikatuko, zerbitzuaren beharrak direla eta, lanaldi berezia dutenei, ezta ordu konpentsazioen bat dutenei ere (txandakako lana, gauekoa, etab.); horiek lan-egutegi berariazkoa izanen baitute.

Iturengo Udalean jendea hartzeko eta bertako Erregistro Orokorra irekita egoteko ordutegia 11:00etik 14:30ak arte da, astelehenetik ostiralera.

Bozketa egin ondoren, aho batez onetsi dira honako erabaki hauek:

Lehena.–Onestea 2025. urterako lan-egutegia.

Bigarrena.–Baliogabeak izanen dira, epeak kontatzeari dagokionez, larunbat eta igande guztiak, eta arestian aipatutako egunak, jaiegunak baitira.

Hirugarrena.–Nafarroako Aldizkari Ofizialean (NAO) eta Iturengo Udaleko iragarki-taulan argitaratzea.

4. UDAL PLAN OROKORRA BEHIN BEHINEKO ONESPENA.

Iturengo Udal Plan Orokorra 2023ko apirilaren 3 an hasiera batez onartu zen Iturengo osoko bilkuran. Nafarroako Aldizkari Ofizialean 2023ko apirilaren 27an argitaratu zen eta hilabete bateko epea ireki zen alegazioak aurkezteko. Udal Plan Orokorra Nafarroako Gobernuko Lurralde Antolamendura bidali zen aldeko txostena eskatuz.



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

39/2015, urriaren 1koa, 22 artikuluan Herri Administrazioa Prozedura Erkideari buruzkoa eta Nafarroako Foru Komunitateko Antolamenduari buruzko Foru legearen Testu Bateginaren 71. Artikuluan ezarrita dagoenez, erantzuteko bi hilabeteko epea dago baina epe hori mozten da, Nafar gobernuako beste departamentuei txostena eskatzen dielako aldi berean.

Lurralde Antolamendu eta Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusiaren txosten orokorrari eta arloen txostenei Udal arkitektuek aurkeztutako erantzuna aztertzen da. Udalbatzak **aho batez hurrengoa erabaki du:**

1.- Udal arkitektuek Lurralde Antolamendu eta Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusiaren txosten orokorrari eta arloen txostenei emandako erantzuna onartzea.

2.- Lurralde Antolamendu eta Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusiari bidaltzea behin betiko onespena eskatuz.

5. UDAL PLAN OROKORRAREN ALEGAZIOAK.

Iturengo udalak 2023ko apirilaren 3ko osoko bilkuran, Hirigintzako Udal Planaren hasierako onespena onartu zen, Nafarroako Aldizkari Ofizialean 2023ko apirilaren 27ko 88 zenbakian argitaratu zena.

Jendaurrean paratzea hilabetez adostu zen, Iturengo Udal Plan Orokorra eta hari dagokion ingurumen-eraginaren azterketa, biak hasiera batez onetsiak, iragarkia argitaraturik Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Foru Komunitatean editatzen diren egunkarietan, interesdunek egoki iruditzen zaizkien alegazioak aurkez ditzaten; hori guztia, bat etorri xedaturik dagoenarekin abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legearen 70.6 artikuluan (Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legea) eta 4/2005 Foru Legearen 31. artikuluan eta hurrengoetan (Ingurumena Babesteko Esku-hartzeari buruzko Foru Legea).

Alegazioak jartzeko epea bukatu zen eta UPORI 31 alegazioak aurkeztu ziren. Udal arkitektuek alegazioei erantzuna jaso da eta irakurri ondoren, Udalbatzak **aho batez hurrengoa erabaki du:**

1.- Udal arkitektuek UPORI egindako alegazioei emandako ebazpen proposamenak onartzea.

2.- Akordioa interesatuari jakinaraztea eta bakoitzari bere txostena bidaltzea.



ITURENGO UDALA

(Nafarroa)
31745

6. NEXT GENERATION UE FUNTSAK KUDEATZEKO IRUZURRAREN AURKAKO NEURRIEN PLANA ONARTZEA.

Kontseilu Europarrak 2020ko ekainaren 21ean onartu zuen Next Generation EU programa sortzea, koronabirusak eragindako krisiari aurre egiteko ekonomia suspertzeko tresna. Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko (EB) 2021/241 Erregelamenduaren bidez ezarria, Suspertze Funts horren muina da.

Espainiako Gobernuak Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioak HFP/1030/2021 Agindua onartu zuen, irailaren 29koa, Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planaren kudeaketa-sistema eratzen duena.

Agindu horren 6. artikulua arabera, «STEPeko neurrien betearazpenean parte hartzen duen erakunde erabakitzaile edo betearazle orok iruzurraren aurkako neurrien plan bat izan beharko du, dagokion jardun-eremuan aplikatzekoak diren arauen arabera erabili direla bermatzeko eta deklaratzeko, bereziki iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazkak prebenitzeari, hautemateari eta zuzentzeari dagokionez.

Azaldutakoan oinarrituta, eta idazkariak idatzitako Iruzurraren aurkako Neurrien Plana ikusita, honako hau

Udalbatzak **aho batez hurrengoak erabaki du:**

- 1.- Next Generation EB funtsak kudeatzeko Iturengo Udalaren Iruzurraren aurkako Neurrien Plana onartzea.
- 2.- Iruzurraren aurka borrokatzeko adierazpen instituzionala onartzea, Planaren I. eranskineko estuarekin.
- 3.- Onartutako Plana Iturengo Udalaren Iragarki Atarian argitaratzea.

7.- ESKAERAK

7.1 2024eko azaroaren 25ean ospaturiko osoko bilkuran, Iturengo udalak Teresa Michelena Ayoroa andreak aurkeztu zuen xehetasun azterlana behin betiko onestu zuen, NAO argitaratu zen 2024ko irailaren 19ko 191. zenbakian eta alegaziorik aurkeztu gabe.

Akordio horretan lizentzia eskatu behar zela oroiturazi zitzaion, proiektua aurkeztuz.

Iturengo udalaren udal arkitektuen bi txostenetan (2024ko abuztuaren 21an eta irailaren 5ean) aipatzen da xehetasun azterlana behin betikoa onartuta dagoenean, lizentzia emateko bisatutako proiektua aurkeztu behar dela.



ITURENGO UDALA

(Nafarroa)
31745

NAO 2016.urteko apirilaren 8ko, 67 zenbakian Iturengo arau subsidiarioak argitaratu ziren eta hirigintza-prozeduraren ordenantzaren ezarrita dago proiektu behar diren kasuak.

“Art. 15. Actuaciones que requieren proyecto de obras

Con carácter general, requieren proyecto técnico las obras de construcción de nueva planta o de reforma de edificios o instalaciones recogidas en el art. 1 del Reglamento de Disciplina, así como aquéllas tendentes a la calificación o recalificación de actividades y usos sujetos a expediente de Actividades Clasificadas y las obras menores no comprendidas en proyectos de urbanización y de ejecución tales como zanjas, vallados, apeos, etc. De forma expresa las de mantenimiento y reparación de la edificación existente que afecte a los existentes o contenga elementos estructurales y las de redistribución del espacio interior o aspecto exterior de las viviendas y las instalaciones.”

Gaia aztertu ondoren, Udalbatzak **aho batez hurrengo erabaki du:**

- 1.- Lizentzia emateko proiektua aurkeztu behar du.**
- 2.- Akordioa interesatuari jakinaraztea.**

7.2- Paz de Ziganda ikastolak antolatu du 2025eko Nafarroa Oinez eta Iturengo udalari laguntza eskatzen dio. Udalbatzak **aho batez hurrengo erabaki du:**

- 1.- 200 euroko ekarpen ekonomikoa egitea.**
- 2.- Akordioa interesatuari jakinaraztea.**

8.- ALKATETZAREN EBAZPENAK.

Alkateak irakurri ditu emandako ebazpenak (65/2024- 114/2024 ebazpenak eta 1/2025- 12/2025 ebazpenak).

9.- HERRIKO GAIEI BURUZKO INFORMAZIOA.

Jarraian Udalbatza hurrengo gaien inguruan jakinaren gainean gelditu da:

Nafarroako Arartekoaren erantzuna M.I.L.E. jarritako kexa, Autizko zaborrontzien leku aldaketari buruz, bere ekintzei amaiera emanez, gomendio, iradokizun edo legezko betebeharraren gogorazpena egin Gabe---641E/2024, abenduaren 13, Kulturako zuzendari nagusia eta Vianako Printzea erakundearen ebazpena 2024 urteko Arte eta Kultura 1.381,77 euroko dirulaguntza ordainduz---14067E/2024, abenduaren 18ko Barne zuzendari nagusiaren ebazpena Helpbidea dirulaguntza 1.378,31 euro emanez---229/2024 abenduaren 9, Ingurumen Zuzendari Nagusiaren ebazpena 2024-2025 baso lana dirulaguntza 35.248,21 euroko dirulaguntza emanaz



ITURENGO UDALA

(Nafarroa)
31745

Ingurumeneko departamenduko Abere ekoizpenaren atalaren ebazpenak abeltzaintza esplotazioan alta emanez: Iker Berregui Mindeguia, zaldiak—sakabanatutako zuhaitzen aprobetxamendua onartzen duen ingurumen departamenduaren ebazpena 22/2025, otsailaren 7koa—Baso Kudeaketara oihan aprobetxamendu luzapenaren eskaera eta baimena JM Gorosterrazu Elizalde et eskera MA Ezcurra Baleztena—Josefa Goñi Aizkorbe andreak idatzi bat aurkezten du uraren bidean egindako obren ondorioz izandako kalteak izan dituela adieraziz, Udalak obrak egindako enpresari bidali dio idatzia (Electra Saltea enpresari)—Kotxe bat Iturengo farola bat jo zuen eta kaltearen txostena jaso da seguruari parte emanez erreklamatzeko—Osasuna Fundazioaren bazkide jarraitzeko eskutitza jaso da—Mirari Erregerena andreak udalan salaketa jartzen du inauteko kontu egunean larunbateko gaban bere etxeko atarin pixa eta kaka utzi zutelako

10.- GALDE-ESKEAK.

Ez dago galde-eskaerarik.

Eta bertzerik ezean, 17:30ak direnean, alkate jaunak bilera akitutzat eman du, eta nik, neronek, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.